

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 380/2023 Erabakia, ekainaren 20koa. Onestea 2022/2023 kanpainarako eskola kiroleko programan jasotzen diren jardueretan parte hartzeagatiko dirulaguntzen deialdia

Kultura eta Kirol Sailak 2022/2023 kanpainan Eskola Kiroleko Programan jasotako jarduerak egiteko laguntza ekonomikoa ematea aurreikusten du.

Horretarako, dagokion deialdia onartu behar da, sailak dagokion dirulaguntzak eman ditzan.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2022/2023 kanpainan Eskola Kiroleko Programan jasotako jardueretan parte hartzeagatiko dirulaguntzen deialdia. Gehieneko zuzkidura 550.000,00 eurokoa izango da. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko da (azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.). Dekretu horren bidez, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia-araubidean ematen diren dirulaguntzei eta ondorengo aldaketei aplikatu beharreko oinarri orokor arautzaileak onartu ziren, bai eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoa ere.

Bigarrena. Era berean, II. eranskina onartu da, titulazio bakoitzeko ezartzen den indizeari buruzkoa.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako aurrekontu partida honen kontura egingo da: 70201. G/341700/48100701 "Eskola-Kirola".

Laugarrena. Organo eskudunak, balorazio batzordeak proposatuta, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere lau hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde interesdunek.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan,

administrazioarekiko auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

I. eranskina

Arabako Lurralde Historikoan irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez 2022-2023 kanpainan eskola kirola garatzeko dirulaguntzetarako deialdia

Lehenengoa. Xedea, helburua eta emateko prozedura

Deialdiaren xedea da eskola kiroleko programan parte hartzeak erakundeetan eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, 2022-2023 kanpainan.

Dirulaguntza deialdi hau norgehiagoka bidez egingo da.

Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak eta haren ondoko aldaketek arautuko dute.

Bigarrena. Aurrekontu esleipena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ez da izango, inolaz ere, 550.000,00 eurotik gorakoa; diru zenbatekoa, nolana ere, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastuen aurrekontuko "Eskola kirola" izeneko 70201. G/341700/48100701 partidari egotziko zaio.

Hirugarrena. Elkarrekin eta erakunde onuradunak eta baztertuak

Hona hemen nortzuk izan daitezkeen dirulaguntza horien onuradunak: ikastetxeak edo haiei atxikitako irabazteko xederik gabeko erakundeak (gurasoen elkarteak, kirol taldeak...) eta Arabako federazioak; bai eta kirol klub eta elkarteak ere, eskola kirolaren 2022-2023 kanpainan izena eman badute eta egoitza edo ordezkaritza Araban edo Trebiñuko enklabean badaukate.

Kanpoan daude Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren bazterte egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek (ALHAOren 134. zenbakian argitaratuta, azaroaren 20an) Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

– Inskribatutako eta lehiaketa ofizialetarako soilik parte hartzen duten erakundeetako taldeak, baldin eta Vitoria-Gasteizko Udalak osorik finantzatutako eta gizarte etxeen eta kirol instalazioen 2022-2023 udal programan eskaintzen diren jarduerak egiten badituzte.

– Eskola kirolerako izena emateko aplikazio informatikoan, bosgarren apartatuan zehaztutako egunean (2023ko martxoaren 31ean), edozein arrazoi edo egoerarengatik baliozkotu gabe dauden taldeak.

– Arabako Lurralde Historikoko eskola-kiroleko programak arautzen dituen araudian xedatutakoa betetzen ez duten taldeak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Diruz laguntzeko modukotzat jotzen da 2022-2023 eskola kiroleko programan parte hartzea hastapeneko jarduerak, kirol eta kultura jarduerak eta partaidetza ibilbideko lehiaketak, bai eta errendimendu hastapeneko lehiaketak ere (salbu eta hastapeneko unitate edo ikastaroetan).

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Ez da eskaerarik aurkeztu beharko, eskaerak 2022-2023 eskola kiroleko kanpainan izena emandako erakunde eta parte hartzaileen (taldeak) inskripzioei dagozkiela ulertzen delako, eta haietan jasotako eta Kirol Zerbitzuak baliozkotutako datuen arabera zehaztuko dira. Dirulaguntzak jasoko dituen datuak 2023ko apirilaren 27an eskola kirolean izena emateko aplikazio informatikotik aterako dira.

2. Hala ere, ondoko kontu hauek balioesteko, beharrezkoa izango da agiri osagarriak aurkeztea:

a) Desgaitasun baten ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako kirol prestakuntzako langileen beharra baloratzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Erakundearen ziurtagiria, honako hauek adierazten dituena:

- Erakundearen identifikazio zenbakia, IFZ eta izena.
- Taldearen identifikazio zenbakia, izena eta kirol modalitatea.
- Laguntza monitorearen identifikazio zenbakia eta izen-abizenak.
- Hezkuntza premia bereziak dituen kirolariaren identifikazio zenbakia.

– Duen desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala.

b) Berdintasun planak gauzatu edo ezarri izana ziurtatzeko, 2022-2023 ikasturtean dagokion plana gauzatu edo ezarri izanaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, programa horren ardura duenaren txostenarekin.

c) Hizkuntza normalkuntza planak gauzatu edo ezarri izana ziurtatzeko, 2022-2023 ikasturtean dagokion plana gauzatu edo ezarri izanaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, programa horren ardura duenaren txostenarekin.

d) "Kudeaketa aurreratuko diploma" ziurtatzeko, hau da, erakundeetako kideek beren egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskalit - Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren ikastaroan parte hartzeagatik eta abian jartzeagatik eskuratutakoa ziurtatzeko, ez da beharrezkoa izango agiri osagarriak aurkeztea, Euskalit-Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren txostenak berretsiko baititu.

3. Aurreko puntuan jasotako agiriak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoko erregistro elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>. Horretarako, alde aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza-nola-sartu>. Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

4. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakundeak horren aurka egiten badu. Inork egiaztapen horren aurka egiten badu, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

Seigarrena. Aurkezteko epea

Aurreko puntuan aipatutako agiriak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientearen instrukzioa egiteko organo eskuduna.

Laugarren oinarrian jasotzen diren programetarako dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, betiere modulu hauen arabera:

1. Talde bakoitzeko balioespena:

a) Modulu hauek aplikatuko dira, eskola kiroleko programan parte hartzearen arabera:

Kimu, haur eta kadete mailan parte hartzen duen kirolari bakoitzeko	22,00 euro
Kirol anitzeko jardueran parte hartzen duen kirolari bakoitzeko	65,00 euro

b) Prestakuntzako langileen kirol titulazioaren zuzenketa indizea:

Aurreko apartatuko emaitza (parte hartzen duten kirolarien kopurua bider parte hartzen duen kirolari bakoitzeko prezioa) talde bakoitzeko, deialdi honen II. eranskinean jasotako titulazio taularen arabera, honako indize zuzentzaile honekin biderkatzen da:

LANGILEEN TITULAZIO MAILA	INDIZE ZUZENTZAILEA
1	1,00
2	1,05
3	1,10
4	1,18
5	1,21
6	1,25

Taldean prestakuntza langile bat baino gehiago badago, titulazio maila handiena duena hartuko da erreferentziazat.

c) Prestakuntza langileen artean emakumeak izateagatik aplikatzeko den zuzenketa indizea.

Aurreko apartatueto emaitza (baliozkotutako kirolarien kopurua bider parte hartzen duen kirolari bakoitzeko prezioa bider prestakuntza langileen titulazioa) talde bakoitzeko, honako indize zuzentzaile honekin biderkatzen da:

Prestakuntza langileen artean emakumeak izateagatik	1,15
---	------

Taldean prestakuntza langile bat baino gehiago badago, titulazio maila handiena duena hartuko da indize hori aplikatzeko erreferentziazat.

d) Ondoren, hala dagokionean, honako modulu hau aplikatuko da:

Desgaitasun baten ondorioz hezkuntza premia bereziak dituen eta laguntza monitorea dituen pertsona bakoitzeko	900,00 euro
---	-------------

Talde bakoitzeko balioespena, guztira:

Honako hauen batura izango da:

– Hauek biderkatzearen emaitza: kirol kopurua eta 1.a) apartatuan zehaztutako kirolari bakoitzeko moduluaren balioa eta 1.b) apartatuan jasotako indize zuzentzailea eta 1.c) apartatuan jasotako indize zuzentzailea.

– Hala dagokionean, 1.d) apartatuan jasotako kopurua.

2. Erakunde bakoitzeko balioespena:

Erakunde bakoitzarentzako dirulaguntza kalkulatzeko, hura osatzen duten talde guztien kalkuluaren batura egingo da.

Erakundearen balioespenari zenbateko hauek gehitu ahal izango zaizkie:

a) Prestakuntza laguntzea, proiektua idaztea eta "hizkuntza normalkuntza planak" abian jartzea.

Hizkuntza normalkuntza planak idazten eta beren erakundeetan abian jartzen parte hartu duten erakundeei modulu hau aplikatuko zaie:

a.1 2022-2023 ikasturtean zehar hizkuntza normalkuntza plan bat egin dela egiaztatzeagatik	500,00 euro
a.2 2022-2023 ikasturtean zehar hizkuntza normalkuntza plana ezarri dela egiaztatzeagatik	250,00 euro

b) Berdintasun planetan prestakuntza jaso, proiektua idatzi eta plana bera ezartzea.

Proiektua idatzi duten eta beren erakundeetan berdintasun plan bat gauzaten ari diren erakundeei modulu hau aplikatuko zaie:

b.1 2022-2023 ikasturtean zehar berdintasun plan baten proiektua egin dela egiaztatzeagatik	500,00 euro
b.2 2022-2023 ikasturtean zehar berdintasun plan bat ezarri dela egiaztatzeagatik	250,00 euro

c) Egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren ikastaroan parte hartu eta ikastaro hori egikaritzea.

Egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskaliten ikastaroan "kudeaketa aurreratuko diploma" eskuratu duten erakundeei, horren baliodun ziurtagiria baldin badaukate deialdi hau argitara ematen den egunean, honako modulu hau aplikatuko zaie:

Euskalitek emandako ikastaroko "kudeaketa aurreratuko diploma" lortzeagatik	800,00 euro
---	-------------

d) "Neskatila eta kirola" programan parte hartzea

Arabako eskola-kirolean genero-berdintasuna sustatzearen esparruan "neskatila eta kirola" izeneko kirol-partaidetzako ibilbidean kirol-kultur jardueran parte hartu duten erakundeei. honako modulu hau aplikatuko zaie:

"Neskatila eta kirola" programan parte hartzeagatik, 2022-2023 ikasturtean	100,00 euros
--	--------------

e) 2022/2023 kanpainarako izena emanda dauden "B kirol jarduera anitza" taldeentzako kirol jarduera anitzak (topaketak) antolatzea.

"B kirol jarduera anitza" taldeentzako kirol jarduera anitzak (topaketak) antolatu dituzten erakundeei, Kultura eta Kirol Sailaren Kirol Zerbitzuak baimendu baldin baditu, honako modulu hau aplikatuko zaie:

Antolatutako jarduera bakoitzeko, 2022-2023 ikasturtean	100,00 euro
---	-------------

Kirol federazioak modulu honen aplikaziotik kanpo geratzen dira, kontzeptu horrengatik diruz laguntzen baitira beste dirulaguntza deialdi baten barruan.

Erakunde bakoitzarentzako dirulaguntza kalkulatzeko, hura osatzen duten talde guztien kalkuluaren eta 2.a, 2.b, 2.c, 2d y 2e apartatuen emaitzen batura egingo da.

Aurreko paragrafoan aipatutako irizpidea aplikatu ondoren, erakunde bakoitzaren zenbatekoen baturak bigarren oinarrian adierazitako guztizko esleipena gainditzen badu, erakunde bakoitzaren zenbatekoaren proportzioan banatuko da esleipen hori.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, aurreko apartatu bakoitzean ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren, 150,00 eurora iristen ez diren eskaerak.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Balorazio-batzorde batek aztertuko ditu eskabideak, eta batzorde hori osatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikulua hartuko da kontuan (1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duena). Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

- Batzordeburua: Kulturako zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.
- Batzordekideak: Kirol Zerbitzuko burua eta zerbitzu horri atxikitako langile tekniko bat, edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak.
- Idazkaritza: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burutza edo hark eskuordetzen duen pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldiko izapidea eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

3. Balorazio batzordeak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpenak emango ditu deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenak jaso beharko du eskatzaileetako zeini ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berariazko ezestea.

5. Deialdi honen ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzen ordainketa

Zazpigarren klausulako apartatu bakoitzeko dirulaguntzak kasuan kasuko ebazpena onartu ondoren ordainduko dira.

Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa berarentzat emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gainditzen ez badu.

Hamaikagarrena. Publizitatea

Herritarrei diruz lagundutako jardueraren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabili beharko dira, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabeta bermatu.

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

II. eranskina

MAILA	TITULAZIOAK
1	<ul style="list-style-type: none"> • Titulaziorik gabe
2	<ul style="list-style-type: none"> • Kirolarekin zer ikusirik ez duten lizentziak/graduak eta diplomak • Aisialdiko hezkuntza jardueren monitoreak • Monitoreak, 0 maila • Eskola kiroleko monitoreak/Eskola kiroleko monitore laguntzaileak
3	<ul style="list-style-type: none"> • Pedagogia, Psikologia eta Gizarte Hezkuntzako lizentzia/gradua • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduko 1. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaituta eduki behar dira • Lehen Hezkuntzako graduko 1., 2. edo 3. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaituta eduki behar dira • LH Ilko Gizarte eta Kultura Animazioa eta aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendaria • Natura Inguruneko Gorputz eta Kirol Jardueren Gidartzaiko erdi mailako gradua • Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionaltasun ziurtagiriak
4	<ul style="list-style-type: none"> • Probintziako monitore edo entrenatzailea, I. maila/graduko entrenatzailea, kirol teknikariaren I. maila edo hasierako zikloa • Irakasle Ikasketen diploma/Lehen Hezkuntzako gradua • Lehen Hezkuntzako graduko 4. ikasturtean matrikulaturik egotea (Gorputz Hezkuntzako espezialitatea/aipamena) • Gorputz eta Kirol Ekintzen Animazioko goi mailako gradua • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduko 2. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaituta eduki behar dira
5	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualdeko entrenatzailea, II. mailako/graduko entrenatzailea, kirol teknikaria (II. maila) • Irakasle Ikasketen diploma/Lehen Hezkuntzako gradua (Gorputz Hezkuntzako espezialitatea/aipamena) • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduko 3. eta 4. ikasturteetan matrikulatuta egotea
6	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuko entrenatzailea, III. mailako/graduko entrenatzailea eta goi mailako kirol teknikaria • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentzia/gradua

Titulazio indizea ez da metagarria izango, eta puntu gehien dituen titulazioa bakarrik balioetsiko da. Aurreko kanpainetan aurkeztutako tituluak ere balioetsiko dira.